

era ayer han sido sustituidos por sitios y asaltos á las casas de huéspedes, fondas y hoteles por un número de 80.000 forasteros que nos visitan entre los meses de Julio, Agosto y Setiembre.

La admirable luz eléctrica alumbrá nuestras calles y paseos y reverbera en el limpio espejo del adoquinado. Relojes eléctricos, fuentes Wallace, y el alambre del teléfono que cruza por todas partes, indican la ciudad moderna y adelantada por excelencia,

Con los arrabales y suburbios cuenta hoy San Sebastian con más de dos mil casas.

ALFREDO DE LAFFITTE.

(Se concluirá).

UMARAN JAUNARI DIOSALÁ.

Ongi etorri, Umaran Jauna,
Jaio ziñaden errira:

Ongi etorri; Machin ta beste
Umant askoren echera:
Ongi etorri, beti noble ta
Leial dan Euskal-errira:
Ongi etorri, beso zabalik
Dauden anaien tartera.

Ongi etorri, dizut pozkiro
Egiten biotzetikan,
Naukatelako zure doaiak
Aspaldi arriturikan:
Ongi etorri; diote nere
Lagun onak zugatikan,
Onegiñ asko dituzulako
Egiñ urez aronztikan.

Ongi etorri, dizute egiten
Ibar ta mendi zokonak,
Aurtasunean gora ta bera,
Ibilli oi zituzunak:

Ongi etorri, dorre, jauregi,
Gaztelu ta murre larrak,
Chirostu eta sasi mardulez
Estaliak dagoztenak.

Ongi etorri; arbol tantaiaik:
Ongi etorri, ibaiak;
Ongi etorri, aizechu eta
Egaztien ots-eztiak:
Ongi etorri, gelditu gabe
Mur mur dauden iturriak
Ongi etorri, *pir pir* egiñaz
Mugitzen diran orriak.

Ongi etorri, zait iruditzen
Diola zure seaskak,
Non lenbiziko bai ziñituen
Aditu amaren kantak:
Ongi etorri, zure guraso
Zarrak daukazkien lurrak:
Ongi etorri, esateko itz
Batean, euskaldun danak.

Baña ¡zér muga miñean eta
Tristean zeran etorri!

Jakin dituzu *Amaren* penak?

¿Nai izan dezu ikusi?

¿Malko gartuak nai ziñituen

Bere oñetan iñuri?

¿Norañoakoak diran emengo

Gaitzak, nai dezu ikasi?

¡Tristeak dira, Umaran jauna,
Euskal-erriko berriak!

Guri guria utzi zenduen

Aritz beneragarriak,

Ego aizeren bitartez dauzka

Igarturikan orriak;

Alde aldean zazkio galdu

Sustrai eta zaiñ lodiak.

Triste artzaiak arkitzen dira;

Eta ¡nola ez gaisoak,

Ardi bildotsak baldin iresten

Badizkie maiz otsoak!

¿Nola ez dira egongo triste,

Baldin ollo ta chitoak,

Ataritikan badaramazki

Arrapatuta miroak?

¿Nola ez dira izango emen

Pena eta naigabeak,

Mendiak baldin badaude pizti

Odolzalezkoz beteak;

Azari zarrez ingurutuak

Chabola ta salecheak;

Arbiska pozoiz eta momorroz

Zelai eta landareak?

¡O atzekabe neurrigabea!

Ez det barrenta gauz onik!

¡Zortzi urte ta geliago doaz

Pozik sentitu gaberik!

Emen ez dago zorionikan,

Ez dago zorakeririk;

Ez dago emen soiñ beltza eta

Lantua beste gauzarik!

Igartu dira zelaiak eta

Zimurtu lore politak:

Erromeririk ez da; iñildu

Ziran chistu danboliñak:

Oso mututu zumarditako

Koplari garbien kantak:

Atzoko argi ugariren truk

Daukazkigu gaur itzalak.

¿Nola zerade, bada, etorri,

Nora, Umaran prestua?

Ikusten dezu jaioterra,

Ozta ozta ondatua!

¡Ai baluteke ume guziak

Zure naitasun gartsua!

Amerikako beti izan dezun

Amorio aiñ sutua...!

Irago arren urteak eta

Egon arren atzerrian,

Ikusten degu bero dezula

Fedea biotz aundian:

Zu bezelako euskaldun asko

Balira Aitorren errian,

Kukuak beste gisa liguke

Joko ¡ai! udaberrian....

Eraman zazu gure laztana

Zure lagun maiteetara:

Gure oroitza, gure biotza,

Zillarrezko Ibiera:

Gure maitasun egiazkoa

Fuero-zale aetara;

Sortacho baten gisa bilduak

Dauden euskaldunetara.

Esanaz: ez da Euskal-erria,

Ez da sekula galduko;

Zeren baditu oraindik-ere

Nai dioten ume asko:

Eta, batasun premiazkoa

Egiñik beti betiko;

Berriro dute, ¡erri maitea!

Lengo oñean paratuko.

OTAEGI-KO KLAUDIO.